

UGAO GURE lapikoa



UGAO-MIRABALLESKO UDALAREN ALDIZKARIA
2016KO MAIATZA 21. ZENBAKIA

ABIAN DIRA BERBALAGUN TALDEAK



Ugaoko Udalak egindako deialdiari erantzunez, oraingoz 20 herritarrek eman dute izena Berbalagun ekimenean parte hartzeko, eta dagoeneko abian dira 3 talde. Beharrizana dutenei (euskara ikasleak, euskaraz no-rekin hitz egin ez dutenak...) mintzapraktika egiteko aukera eskaintzea da Berbalagun programaren helburua. Horretarako, astean behin elkar-tzen dira 4-5 laguneko taldeetan. Oraingoz, hiru talde jarri dira mar-txan, baina behar edo eskariaren arabera, talde berriak osatzeko auke-ra zabalik dago. Beraz, Berbalagun ekimenean parte hartu nahi izanez gero, deitu Udal Euskara Zerbitzura (94648 07 11) edo Jane Jauregira (94 648 07 04).



UGAO-MIRABALLESKO UDALAK 3 DESFIBRILADORE ESKURATU DITU



Ugao-Miraballesko Udalak 3 kanpoko desfibriladore erdiautomatiko eskuratu zituen 2015. urtearen amaieran. Desfibriladore bat udaltzaingoak eramango du, uneoro, beraien ibilgailuan, eta gainerako biak udal kiroldegian eta futbol zelaian ezarriko dira.

Udal iturrien arabera "erabiltzeko errazak diren tresna eramangarri hauek eskuratuta bihotz-biriketako geldialdi bat izan dezakeen edonori, laguntza espezializatua iritsi arte, lehenengo arreta azkar bat emateko prest egon nahi dugu". Egindako azterketek islatzen dutenez, desfibriladoreekin bihotzeko larrialdi baten aurrean bizirik irauteko itxaropena areagotu egiten da.

Hiru desfibriladoreak eskuratzeaz gain, Oinarrizko Bizi-euskarriari buruzko prestakuntza eta defibriladorea erabiltzearen inguruko informazioa zabaldu da. Oinarrizko prestakuntza izan da; izan ere, desfibriladore erdiautomatikoak erabiltzeko hain errazak dira osasun arlokoak ez diren pertsonak ere defibriladoreak segurtasunez eta eraginkortasunez erabil ditzaketela, desfibriladoreak berak adierazten dituen argibideak urratsez urrats jarraituta eta, betiere, 112ko koordinatzailearekin telefono bidez kontaktuan jarrita. Udalaren helburua da bihotz-arloari dagokionez udalerrri gero eta babestuagoa izatea.

Ekaitz Mentxaka alkatearen arabera "udalak laugarren desfibriladore bat eskuratuko du 2016an, eskolan jartzeko. Horrela, alde batetik, arrisku handiena duten guneak -kirolguneak eta herrigunea- babestuta egongo liriateke, eta bestetik, ume gehien batzen den tokia".

Hiru Kanpoko Desfibriladore erosteak 4.809,75 €ko kostua izan zuen, BEZ barne, eta hauetatik 3.000 € La Caixaren gizarte-lan arloak eman zituen.

LANKIDETZA-HITZARMENA EEEREKIN

Ugao-Miraballesko Udalak, joan den abenduaren 30ean, lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuen Energiaren Euskal Erakundearekin (EEE) "Alkateen itunerantz zuzenduz" ekimenean parte hartzeko.

Alkateen ITUNERANTZ zuzenduz EEEK (Energiaren Euskal Erakundeak) diseinatutako ekimen bat da. Honen helburua 2020ari begira udalerrietan energia plangintza alorke garatzea da, hau da, udalerrian energia kontsumitzen duen alor bakoitzerako plangintza espezifikoa egitea 2020. urteari begira.

Energia plangintzak alde aurretik EEEren eta Ugao-Miraballesko Udalaren artean adostutako ekintzak zehatzak finkatuko ditu energia kontsumitzen duten arlo guztietan, industrian izan ezik. Honako arlo edo sektore hauetan, hain zuzen ere: argiteria publikoa eta udal eraikinak, garraioak, zerbitzuak, bizitegi-arloa eta lehenengo sektorea.

Aipatutako lanen ardatza adierazitako arlo edo sektore guztietan eraginkortasun energetikoa, mugikortasuna eta energia berriztagarriak inplementatzea izango da. Beraz, ez da udal plangintza orokorra -ALKATEEN ITUNEAN bezala-, kontsumitzen duten alor edo sektoreetan egiten den plangintza bat baizik.

Udalak urtero EEEekin adostutako ekintzetako bat inplementatu beharko du gutxienez.

EEEEK, bestalde, aldean artean zehaztutako helburuak lortzea errazteari begira jarduteko konpromisoa hartuko du. Honetarako, ITUNERANTZ zuzenduz sinatu duten udalerriei dagokien laguntza teknikoa emango die.

Era berean, EEEK, adostutako ekintzak zein egitasmoak finantzatzeko balizko bideak bilatzea eta identifikatzea errazteari begira jarduteko konpromisoa ere hartuko du.

Hitzarmenak 2 urteko iraunaldia izango du, sinatzen denetik zenbaitzen hasita. Aipatutako epea igaro ostean hitzarmena automatikoki luzatutzat joko da, epe berdinerako, betiere aldeetako batek berriaz uko egiten ez baldin badio.

Udalak, horrela, eraginkortasun energetikoari dagokionez 2013 ekitaldiko amaieran hasitako bidean urrats bat gehiago emateko ahalegina egin du; urte hauetan hainbat izan dira egindako inbertsioak eta hartutako neurriak, eta hauen bidez lortu da, esaterako, berotegi-efektuko gasen isurketak urritzea eta, aldi berean, faktura energetikoa 70.000 €tan murriztea.

ETXEBIZITZA HUTSAK BIRGAITZEKO DIRU-LAGUNTZEN ORDENANTZA ONARTUTA

Udal Osoko Bilkurak joan dan abenduak 27an, aho batez onartu zuen etxebizitza hutsen jabeen diru-laguntzak ematea, etxebizitzok Eusko Jaurlaritzak alokairurako dituen programa publikoetara, ASAP eta Bizigune, bideratuz gero, arautzen duen ordenantza.

Zehazki, 3 laguntza mota emango dira:

- 1. Obrak egiteko:** Etxebizitzak birgaitzeko obrak egiteko laguntza, ostean aurretik aipatutako programetara bideratzen badira. Diru-laguntzen zenbatekoa obren zenbatekoaren %20a izango da, BEZ barik. Etxebizitza bakoitzeko gehienez ere 1.000 €ko diru-laguntza emango da.
- 2. Alokabidek eskatzen dituen altzariak erosteko:** Alokabidek etxebizitza bere programetan sartzeko altzariak edo etxetresna elektrikoak erostea aginduz gero, udalak hauen %20a diruz lagunduko du, BEZ barik. Gehienez ere 1.000 €ko diru-laguntza emango du.
- 3. Energia-eraginkortasun egiaztagiria ordaintzeko:** aipatutako egiaztagiria, ezinbestekoa etxebizitza bat Alokabidera atxiki ahal izateko, %100eko diru-laguntza izan ahalko du, 100 €ko mugarekin.

Diru-laguntzen muga 1.000 €koa izango da, baita ere, onuradunek berau bizpahiru kontzeptugatik jasotzen dutenean. Ordenantza honen onarpena Udala 2014 urtetik hartzen ari den neurrien barruan kokatzen da. Lehenengo, Ugao-Miraballesen etxebizitza hutsen benetako egoera ezagutzeko azterketa bat egin zen. Ostean, ondorengo neurriak hartu dira:

- EIOZen ordainketan %95era arteko hobaria onartzea, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza programa publikoetan atxikiko diren etxebizitzetan obrak egiteko.
- Udal etxebizitza tasatuaren ordenantzan erosteko aukera duen alokairua modalitatea sartzea. Horrek Goikirin hutsik zeuden 5 etxebizitzetatik 3 okupatu izana ahalbidetu du.
- Alokabiderek hitzarmena sinatzea: Honako hauek dira hitzarmen hau sinatzearen helburuak; alde batetik, Ugao-Miraballesen hutsik dauden etxebizitzak ASAP eta Bizigune programetara bideratzea, eta bestetik, hauen jabeentzako leihatila bakar funtzioak egitea, horrela Alokabiderek egin beharreko izapidetze guztiak Ugao-Miraballesko Udalean bertan egiteko aukera izan dezaten.
- 2015eko aurrekontuan 6.000 €ko partida bat sartzea, azken Osoko Bilkuran onartutako ordenantzan arautzen diren diru-laguntzak emateko.
- Honi guztiari urteetan hartzen ari diren beste neurri batzuk gehitu behar zaizkio, esaterako, ASAP edo Bizigunera atxikitako etxebizitzei OHZren ordainketan %50aren hobaria ezartzea.

Ekaitz Mentxaka alkatearen iritziz, *“urte askotarako proiektu baten aurrean gaude, urrats txikiak baina garrantzitsuak ematen ari gara Ugao-Miraballesen egunetik egunera etxebizitza huts gutxiago egon dadin, horrela ahalbidetuko baitugu etxebizitza bat alokairuan izateko beharrezana dutenek, eta bereziki gazteenek, gure udalerrian geratzeko aukera izatea”*.



UGAO-MIRABALLESKO UDALAK HONDAKIN ORGANIKOEN EDUKIONTZI MARROIA ERABILTZEKO BALDINTZAK GOGORARAZTEN DITU

Ugao-Miraballesen 2014ko urritik eskaintzen da hondakin organikoen edukiontzia marroia erabiltzeko zerbitzua. Zerbitzu hau bosgarren edukiontzia edo edukiontzia marroia, eta autokonpostajearen bidez ematen da.

Gaur egunera arte, 42.215 hondakin organiko kilo jaso dira bosgarren edukiontzia bitartez, eta beste 9.486 kilo autokonpostatu dira herriko etxebizitzetan. 388 dira gaikako bilketa honen aldeko konpromisoa hartu duten herriko etxebizitzak –guztira %28,8a-: %26,2ak bosgarren edukiontzia erabiltzen du eta %2,6ak autokonpostajea egiten du.

Une honetan, Ugao-Miraballesko Udalak bosgarren edukiontzia ondo erabiltzeko baldintzak zeintzuk diren gogorazi nahi ditu.

Hasteko, eta oso garrantzitsua dena, poltsa konpostagarriak baino ez dira onartzen. Baldintza hau bete ezean, beste pertsona askoren ahalegina zapuzten da. Hondakin hauek Bizkaiko Konpostaje Instalaziora eramaten dira, eta honetan ez dira plastikoa onartzen. Udalak doan banatzen dizkie poltsa konpostagarriak gaikako bilketa honetan parte hartzen duten etxebizitza guztiei.

Gogorazi beharreko bigarren baldintza, bosgarren edukiontzian landare jatorria duten hondakinak baino ezin direla utzi, berdin izanik freskoak edo kozinatuak diren: frutak, berdurak, lekaleak, barazkiak, ogia eta opilak, paperezko ahozapiak, lorezaintza hondar gutxi batzuk, fruitu lehorrak, etab. Hondakin hauek ortuetan eta lorategietan erabiltzeko ongari edo konpost bilakatzen dira.

Hirugarren baldintza, gaikako bilketa honetan norbere borondatez eta doan parte hartzen dela. Interesatuta dauden eta oraindik izena eman ez duten etxebizitzek udaletxean jaso dezakete birziklatzeko kita: 10 litroko edukiera duen ontzi bat, 100 poltsa konpostagarri, edukiontzia zabaltzen duen giltza, eta argibide-eranskailu bat. Ortua edo baratza duten etxebizitzek autokonpostajea egiteko ere eman dezakete izena; hori bai, honetarako gutxieneko prestakuntza jaso behar dute konpostatzeko kita jaso aurretik: konpostatzailea, aireztatzekoa eta gida didaktikoa.

Azkenik, komeni da gaikako bilketa honek dituen abantailak azpimarratzea. Lehenbizi, sortutako hondakin-kopurua asko murrizten laguntzen duela, eta honek erabateko lehentasuna du giza jardueraren ondorio hau arduraz kudeatzeko. Bigarren abantaila, emaitza onuragarria duela: ortuen, parkeen zein mendien lurzoru hobetzeko ongaria sortzen baita. Hirugarrena, zaborraren tratamenduak duen kostu ekonomikoa aurrezten laguntzen duela. Eta laugarrena, ekonomia zirkularra sustatzen duela: hondakina baliagai bilakatzen du, materiaren zikloa itxiz.





GASTUA MURRIZTEKO POLITIKA



Ugao-Miraballesko Udalak gastu publikoa eusteko eta murrizteko politika garrantzitsua darama aurrera, azken urteotan izandako diru-sarreraren jaitsierari aurre egin eta eskaintzen diren zerbitzuen maila mantendu asmoz. Horretarako, arrazionalizazio eta eraginkortasun neurriak hartu ditu baliabide publikoen erabilerari dagokionez.

Hiru ardatzen inguruan hartu dira neurriak: Austeritatea, Jasangarritasuna eta Eraginkortasuna.

Dagoeneko hasi gara antzematen lehenengo emaitzak eta aurrezpen esanguratsuak giltzarri diren zerbitzuetan, esaterako, energia elektrikoaren horniduran zein garbiketara eta lorezaintza zerbitzuan.

Energiari dagokionez, 2013ko amaieratik abian jarritako jarduketak-lerro desberdinen bidez lortzen ari gara hornidura elektrikoaren gastua optimizatzea.

Besteak beste, luminariak led-era aldatu dira, kontsumo handiena duten udal eraikinetan auditoretza eta monitorizazioa egin dira, eta hauen osagarri kontratatutako potentziak doitu egin dira, edota Iberdrolarekin negoziatu egin da Udalarekin zituen kontratu desberdinei prezio ekonomikoagoa ezarri asmoz. Neurri hauen guztien eraginez kilowatt-ordu kontsumoa gutxitzen ari da, kutsadura luminikoa eta berotegi-efektuko gasen isurketa murriz-

tuz, eta era berean aurrezpen ekonomiko esanguratsuak lortzen ari gara. Zehazki, 2015ean aurreko urtean baino 49.336 € gutxiago gastatu ziren, eta honi 2014 urtean lortutako 25.316 €ko aurrezpen osagarria erantsi beharko litzaioke. Beraz, Ugao-Miraballesko Udalak azken urte bietan 74.652 € aurreztu ditu energia-gastuari dagokionez, eta horri gasoliotan aurreztutako beste 6.000 €ak gehitu beharko litzaizkioke.


Garbiketara eta lorezaintza zerbitzuari dagokionez, udal sail teknikoak egindako eta zerbitzua berrantolatzea barne hartzen duen optimizazio-azterketa batetik abiatuz, urtero 50.000 € inguru aurrezteara lortu da. Honi esleipen berriari sartutako hobekuntzak gehitu behar zaizkio. Ondorengo metodologia erabili da baldintza-agiriak egiteko:

- **1. fasea: Egun zerbitzuak dituen kostuen egiturazko azterketa, koordinazioa eta tarteko agintariak barne hartuz**
- **2. fasea: Gastua optimizatzeako aukerak identifikatzea, eta Jarduketa Plana egitea (zuhaitzak aldatzea, gandolak ezartzea...)**
- **3. fasea: Hobekuntzak ezartzeko zeregina eta jarduketak gauzatzea**

Honi gehitu behar zaio etxeko hondakinak batzeko zerbitzua (errefusa, organikoa, tamaina handikoak, papera eta kartoia) kudeatzeko agindua eman zaiola Udaltalde 21 iraunkortasunaren eskualdeko bulegoari; honen ondorioz, eskualdeko 9 udalerrietako aipatutako zerbitzuak kontratu bakarrean batu eta aurrezteara lortuko da. Hala ere, berau lizitatu eta esleitu arte ezin izango da zehaztu aurrezpenaren zenbatekoa. Beste aurrezpen-iturri garrantzitsu bat Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatuko den hitzarmenak eragingo du. Hitzarmen honen bidez, foru erakundearen esku geratu da betearazpen bidean dauden udal zergen eta tasen diru-bilketa kudeatzea. Orain arte lan hau enpresa pribatu batek egiten zuen, udalak ez baititu horretarako behar diren besteko baliabideak.

Aurreko guztiari beste udal gastu batzuetan etengabe egindako murrizketak erantsi behar zaizkio, esaterako, zerbitzu juridikotan, itzulpenetan, udal aseguru desberdinetan, euskaltegian, etab. Zentzu honetan, garrantzitsua da kontuan izatea diru-sarrerak jaisten ari direla urtez urte, honek inbertsioak egiteko aukera asko zailtzen duelarik. Gainera, krisi ekonomikoaren ondorioz gizarte-gastua ere handitu egin da, eta honek 2015ean gizarte-larrialdirako laguntza birritan handitzea ekarri du.





2016KO AURREKONTUAK

Udalbatzak, apirilaren 26ko Osoko Bilkuran, 2016ko udal aurrekontuak onartu zituen EAJ-PNV udal taldearen aldeko botoekin eta EH Bilduko ordezkarien aurkakoekin.

Diru-sarrerei eta gastuei dagokionez aurrekontu orekatua da, 3.764.140,92 €koa, diru-sarreretan 2015ekoarekin alderatuta 239.560,97 €ko beherakada izan duena. Hau, batez ere, Foru Aldundiko Ogasunak zergetan diru gutxiago batu izanaren eraginez gertatu da. Aldundiak 2015eko ekitaldia likidazio negatiboarekin itxi duenez udalek diru-sarrera gutxiago jasoko dituzte Aldundiaren Udalkutxa funtsetik.

Ugao-Miraballesko 2015eko udal aurrekontuaren likidazioa positiboa izan dela azpimarratu beharra dago, eta horrek ahalbidetu du egun 130.235,41 €ko diru-zaintza gerakin likidoa izatea. Zenbateko honetatik 2.589,64 € kendu behar dira, 2016ko udal aurrekontuetan sartuko direnak, Ugaoko Dorrea eta Barrena kaleen arteko bidegurutzean espaloia birmoldatzeko lanak ordaintzeko erabiliko baitira.

Hala ere, Ekaitz Mentxaka alkateak azaldu duenez, “diru-sarreraren jaitzieraz gain, aurreten beste oztopo bat ere badugu, Madrilen onartutako Administrazioa Arrazionalizatzeko eta Egonkortzeko Legeak inposatzen duen gastu-mugara iristen dela aurrekontua. Udalaren iritziz justua ez den legea, betekizun berberak ezartzen baitizkie zorrak dituzten udalei, zein ekonomia onbideratua izanik zorrik ez dugun udaloi, azken hau izanik Ugao-Miraballesko Udalaren kasua”.

2015eko ekitaldian Aldundiak egindako likidazio negatiboagatik itzuli beharreko 238.506 €ak kendu ostean 2.387.196 € izango dira Udalkutatik etorriko direnak. Udalkutatik datozen diru-sarrerei beste erakunde batzuetatik jasoko diren diru-laguntzak gehitzen badizkiogu, datuek adierazten dizkigute Udaletxeak dituen diru-sarreraren

%72,27 Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzetatik datozela. Diru-sarreraren gainerako %27,73 herrian zergetatik eta tasetatik bildutakotik dator.

Gastuen %59a eskaintzen diren zerbitzuei aurre egiteko erabiltzen da. Ingurumari honetan, diru-sarrerak %6 jaitsi diren arren, inbertsioak egitera bideratutako zenbatekoa %29,79 igo da. Inbertsioei dagokionez azpimarratzekoa da Haurreskolan udan egingo diren lanak, gela bat gehiago egingo baita Haurreskolan ume gehiagok sartzeko aukera izan dezaten. Langile gastuek, gizarte segurantzaren barne, %34,41 suposatzen dute.

Gizarte ekintza sailean, iaz aurrekontuan egon ziren partidak egondako eskaera esaltzeko bestekoak izan zirela nabarmendu beharra dago, etxe etxeko laguntza, gizarte-larrialdirako laguntza zein udal gizarte larrialdi kasuetan. Mendetasuna dutenen zaintzaileak artatzeko zerbitzuak eta beste hainbat zerbitzu eskaintzen dituen Zaindutzaren programa mantentzeko apustua ere egin da.

Era berean, eta aurreko urteetakoari jarraiki, diru-sarreretan jaitziera nabarmena jasan arren elkarteei ematen zaizkien diru-laguntzen zenbatekoa mantentzeko ahalegina egin da, herriaren alde egiten duten lana beste behin ere funtsezkoa dela uste baitugu.

Bestalde, Ugao-Miraballesen etxebizitzak alokatzea dinamizatzen ahalegintzeko egitasmo bat jarri zen abian orain dela urte bi. Aurten ere, etxebizitza programa publikoetara bideratuko diren bizilekuetan egingo diren birgaitze-lanak zati batean finantzatzera zuzendutako partida bat dago aurrekontuan. Kasu hauetarako, EIOZaren gaineko hoberia ere mantentzen da.

Inbertsioei dagokionez, honako hauek egingo dira:

- **Haurreskola birgaitzea, 46.900 €**
- **Luminariak aldatzea, fakturen zenbatekoa zein kutsadura luminikoa murriztu asmoz, 32.500 €**
- **Leitoki ikastolarako alboko sarbidea hobetzea, 20.409,60 €**
- **Ur hornidura sarea zati baten berritzea, 21.000 €**
- **Araztegia kentzea eta Leitoki ikastola ondoan lorez hornitzea, 13.700 €**
- **Informatika-tratamendurako ekipo berriak eskuratzea, 6.500 €**
- **Zabu berriak eskuratzea Victor Chavarrirako, 2.150 €**
- **Kanpoan ezartzeko gimnasia-aparatuak eskuratzea, 4.100 €**

Azpimarratzekoa da inbertsio gehienek herritarrek eta eskola-komunitateak egindako proposamenetan dutela jatorria.

Aurretik aipatutako inbertsioez gain, herriko elkarteek edo herritarrek egindako proposamenetatik datozen beste jarduketa batzuk ere egingo dira, esaterako:

- **Espaloiak eta oinezkoentzako pasabideak aldatzea, oztopo arkitektonikoak kendu asmoz, 6.000 €**
- **Desfibriladore bat eskuratzea Leitoki ikastolarako, 1.700 €**
- **Futbol zelaiko teilatua konpontzea, 12.500 €**
- **Txarto dauden edo zaharkitutako geratzen diren zabuak hobetzea, 13.460 €**
- **Kaleen mantenua eta irisgarritasuna hobetzea, 12.000 € helburu honekin egingo diren jarduketan artean, azpimarratzea Sabino Arana kaleko sakanguneak konponduko direla**
- **Usilan dagoen Burdinazko Hesiaren Gotorlekua txukuntzea, 5.000 €**
- **Kaleetako zuloak konpontzea, 20.000 €**
- **Konponketa arruntak, 44.743,50 €**
- **El Jaro kirol instalazioetan hobekuntza-lanak, 4.500 €**
- **Arandiako igerilekuak konpontzea eta hobetzea, 17.000 €**